

Nafarroako Esaera Zaharrak. Urdian

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Nafarroa-ko euskal esaera zaharrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Nafarroako Esaera Zaharrak. Urdiain

- 144 *Aituna baratzeko paretatik erori duk. -Nora erori da, barrenera edo kanpora? -Kanpora. -Ondo zio; bestela akabo gure azaplantak.*
Onen antzekoa da Oihenart-ek aipatzen duen artzaiarena: "*Lotsa nintzan esnea zen isuri, baina aita da hil; Jainkoa, esker zuri!*" (304).
- 145 *Aldameneko auntzak errape aundia.*
Besteen gauzak obeak iduritzen. Beste zenbait lekutan olatsu; Oihenart-ek ere: "Atzearen behiak erroa handi" (47).
- 146 *Aldamenekoak beti ondo bizi.*
Guk ala uste.
- 147 *Amarrak: aldeko ataien (atarian) abarrak.*
- 148 *Apirila biribil: urdia urdetegian il.*
Elurte luzeetan.
- 149 *Apirila fan ta maiatza gero: ganbarein (ganbararen) baztarrian agotza bego.*
Maiatzean bear izango da oraindik agotza, lastoa.
- 150 *Ardi zarrak lagun gura.*
Baita kristauak ere.
- 151 *Aukera-maukera, azkenean okerra.*
Ezkondu aurrean erakerietan dabillinari ori gertatzen.
- 152 *Bearrak erakusten du atzeko aldea nola dantzatu.*
Lana nola egin.
- 153 *Bera dena bestei; zartagi zarrak pertzari: ipur-beltz.*
- 154 *Bere izena don Franzisko, besteena don "cuerno".*
Gizon arro aundi-ustekoaz.
- 155 *Berez ez dena, makilatu ta ere ez.*
"Alper da Maria makillatu, berez bear du".
- 156 *Beste lanik etzuenak auntzai burua ikuzi.*
"Ikuzi" aspaldiko euskal-itx jatorra, urez edo garbitu (erderazko lavar), gure artean galduxa bada ere.

- 157 *Betelu, diebro guzien okullu.*
- 158 *Etzaio faltako orri zaien erren (arantza) bat.*
Zaian ez da izaten arantzarik; baña gizon orri bai zaian ere aterako zaio arantzaren bat, nonnai agertuko zaio beaztopoen bat. Oihenart-ek: "Batzuren gatzontzian ere harrak sortzen dira" (72).
- 159 *Eztu miian erdoirik.*
Eztu mingaiñean erdoirik, mingaiña lasa du.
- 160 *Fan (joan), ta ez etorri.*
Zorretan gelditu danen batez edo esana.
- 161 *Geren faltak bizkarrean, besteen faltak aurreko aldean.*
Argatik gureak ez ditugu ikusten, besteenak bai.
- 162 *Gose dena amets asko.*
Bere buru-austek eragiten amets. Oihenart-ek ordea: "Hor (zakur) gose, loz ase" (250).
- 163 *Gure maia mai onradu, ez jan ta ez sobradu.*
Geiegirik gabe, naikoa jaten duena.
- 164 *Idiek eztula egin, eta San Blas!; aitunak eztula egin, eta itoko al aiz ba!*
Ori itsuseria!
- 165 *Idik (idiak) esan omen zun:*
Maiatz luzia, maiatz gosia. Arek eraman zun nere alabia.
- 166 *Ilbeltza pasatzen bada iltxuri (ehurretan), ardiak aziko du axuri.*
Uda ona izango dela.
- 167 *Iruak: errekan diruak.*
- 168 *Jaka-n beiek merke: andik ekartzia neke.*
Urrutiko gauzak merke izan-arren, andik ekartzea kosta da.
- 169 *Jarri-ta, ipurdiaindo (ipurdiraño).*
Besten ipurdiraño irixten ez dena, ain txikia delako.
- 170 *Jendea, jan eta gelditu bear omen da: Jain lauke, jain lauke (jango luke).*
Oraindik jateko gogoarekin; alegia, neurritz jan bear dela.
- 171 *Kanpoko farragarri, etxeko negargarri.*
Arrotz artean farragarri gelditzen dena etxerako negargarri.

- 172 *Kukua etorri, gosia etorri: kukua fan, gosia fan (joan).*
- 173 *Martxoan lainoa noraindo (noraño),
apirilan elurra a (r) untzaindo (araño).*
- 174 *Martxo "cuerno"! E (g) ik, eta lerrei egin zak-eta.
Leer egin zak, edo bota zak botatzekoa.*
- 175 *Migel, zakua bete gibel.*
- 176 *Nere müye mitilik, ixilik ezin egonik.
Mitilik = itzontzikerian.*
- 177 *Nola etorri ala fan, Mari Juan.*
- 178 *Nolako guraso, alako ume.*
- 179 *Oilarrak bere lekuban agintzen du.
Etxeko nausiak bere etxean.*
- 180 *Orri etzaio faltako astian ostirala bere larunbatarekin.
Gose izaten danaz.*
- 181 *San Bartolome: bura lodi ta lepua me.*
- 182 *Santa Luzia egunerako, eguna oiloa (re) n atzaparra azitzen:
Eguberri (edo Urte-berri) eruak ere igarri.
(Santa Luzia, abenduaren 13'an).*
- 183 *Txakur jaunkariak, ozkarik ez.*
- 184 *Zarroo ta bearroo.
(Zarrago ta bearrago).*
- 185 *Zenbat atei, anbat klisketa.
Asmakizuna.
Basoan jaio ta basoan bizi: errira etorri ta, nagusi.
Atei = atari; klisketa = maratilla.
Zer da? Pertika edo akullua.
(Beste errien batean, alkate-makilla edo zigorra).*